

# Iparaldeko Bertsulari Xapelketa

# Burdinazko imanak

JOXEMARI OSTOLAZA

LUNBAGIAK jota nengoen bezperatik. Sendagile lagunarengana jo eta gramo bat antinflamatorio bi alditan banatuta hartu eta gogorrek bigundu zitzaizkidan. Garaiz abiatu eta Donibane Lohitzuneko tren geltokiko ingurutik ikus zitezkeen antolakuntzaren fundamenduak. Ez zegoen galbiderik mugaz haruntzik etorri eta Jai Alaiaren kokapena ezagutzen ez zutenentzat. Komisaldegiairen aurreko sugorritan, parkinlekurainoko panel bik zuzendu gintuzten lekura. Bertan, ANTOLAKUNTZA izkiriaturik zeramaten laguntzaileek igorri gintuzten aparkalekura. Bikain. Frontoira hurbildu eta etxean geundela sentitu, bat. Atarian topatu nituen lagunmin pare bat, dozena bat lagun, beste hainbeste adiskide eta ezagun andana. Hauen artean, bertsolari asko. Barrura egin eta leku aproposenak jendez beterik. Goialdeko ezker aldean jazarri ginen, erdialdetik gertu. Kokapen egokia, politikoki hainbatek desiratua. Frontoiak, argiztapen arruntaz eta oholatza aldiz bereziaz, bi foko atzean eta beste bi paretik zuzenduak. Arruntak saioa hasi eta lehen agurrak izaliko zituztela pentsatu nuen, erratua nengoen. Tenorez eman zioten hastapena finalari. Zozketak ekarri zigun lehen poza: Kartzelakoan Maialen-Miren lehenak, Amets-Sustrai azkenak, ogitarteko onak gustuko ogia duela beharrezko lehengaia adieraziz.

## Lehen agurrak

Maialenek bere irabazteko gogoak erakutsi zizkigun bereaz. Sustrairenak eraman ninduen denboraren hara, frontoi berean bertako “Gure Ikastolak” antolatzen zituen kantaldi haietara, Herri Urrats eta Pastoral aipatu zituelarik. Euskal kantari ugarienaz gain, kanpoko artista anitz ezagutu genituen bertan. Atahualpa Yupanqui, Quilapayun, Cuarteto Cedrón, Paco Ibáñez, Luis Llach (bere Canpanades a morts estreinatu zuena) Miro Casabella... Eta bereziki GALEk erail-

## Txapeldunari elkarrizketa argia.com-en

Amets Arzallusi txapelketaren ostean eginiko elkarrizketaren bideoa ikusgai duzu [www.argia.com/bideoak](http://www.argia.com/bideoak) helbidean. Irudian, Xanti Iparragirrek txapela jantzi zioneko unea.

dako lagunaren omenaldien gomutek gorputza mugitu zidaten. Berriz ere, Jai Alaik etxekotu ninduen. Oraingo honetan pasaportetik gabe bertaratu ahal izan zuten bestaldekoek. Poliziek ez zuten hain gogoko duten “Operación Filtre” erabili eta lasaitasuna nagusi.

Saio guztiek ez zidaten arreta maila berean mantendu, ofiziozalea naizen aldetik, saio zenbaitek, nahi gabean deskonektarazi egin ninduten. Hamarreko txikikoak bukatu, eta arnas luzean sartu nintzen. Luzeegian. Bada-kigu jakin, kartzelako itzuli motzarenak ere luze jotzen duena. Luze, zain dagoenarentzat, bizi bat uzteko zain dagoenarentzat. Binaka libratzen joan ziren bertsolariak patua lagun. Azken bien zain zegoen honi, hauen etorrera antinflamatorioa bezain lasaigarria suertatu zitzaion. Seiko motzean, Ametsek Amurizaren *Menditik Mundura* diskoko “Euskal Herriatik aparte” doinuan kantari entzutean erakarri arretaz, lumbagia ahazteraino eraman ninduen. Merezki izan zuen egonaldiak.

## Hondarrekoak

Iparralde markak imana du. Euskalgintzako publikoarentzat bertsolari txapelketek ere bai. Bi besoko imana kasu honetan. Burdinazkoa behar du, nahiz plastikazkoak artilezko gaitan igurtziz momentuko gai arinak erakartzeko baliagarriak izan. Bainan fite galtzen dute inportatutako ezaugarri erakarlea baldin ez badute igurtziztaile permanentetik lanean. Bi ahokoa eta burdinazkoa, etengabeko hobekuntzaren bidean.

Bukaerako utzi dut epaiarena, niri, oraingoan ez dagokidana. Iragarle eskasa naiz, eta horregatik ez dut deusetan ezer jokutzen. Ez lotoan, ez kinielatan. Sustrai ikusten nuen txapeldun. Ametsen garaipenak poztu ninduen. Uztarri berekoak ditut, ahobiko burdinazko imanak. Estitxuren artikulua argituko ahal nau. ■



# Uztapide eta Xalbador

ESTITXU EIZAGIRRE

HISTORIAZ GAIN SAIO ONA osatu zuten bertsolariak. Kartzelako lana luzeegia izan zen eta horrek garratzu zuen entzuleen sentsazioa. Colinak eta M. Arzallusek egindako zortziko handiko lanak (irradi euskaldun batean erdarari hitza eman bai edo ez) hasiera indartsua eman zion saioari, eta intentsitatea galtzen joan bazen ere, Artetxek eta Barrosok zortziko txikian egin zuten lanak berriro lehertu zuen saioa (Artetxe bankuko langilea eta Barroso lapurra. Bi hauek bertsoarako oso biko ona osatzen dute). Erramundegi eta A. Arzallusek ere saio bizia egin zuten (pisu berean bizita Arzallus ligoia eta Erramundegi lehortean dagoena); A. Arzallusen bigarren bertsoa goitik behera ikastekoa zen, bukaeran trabatu bazen ere. Aipaturiko saio gehienetan gaiaren enfokea izan zen gakoetakoa bat: Zortziko handian Colinak etorkin denak hartu zituen “erdaldun” zakuaren barruan, eta horrek bere jarrerari indarra eman zion. Arzallusek Barroso bertso kantari sartu zelako ezagutu zuela bota zuen, eta horrek bertsoaritzarekin umorea egiteko atea ireki zien.

## Kantakerak

Arreta piztu zidan bertsolari bakoitzak oholtzan hartzen duen presentziari, eta kantakerari. Elementu horiek aitortzen dieguna baino pisu askoz handiagoa dute. Maialen Arzallusen indarra, distira, zuzen iristen zen entzuleongana. Milaka belarriz osatutako frontoia bete egiten du. Miren Artetxek kontzienteki kantakera sotilagoa agertu zuen, barrena oholtzara ateratzeak eskatzen duen tonu intimoago bat bilatuz. Kantakera horrekin publikoarekin konektatzea zailago egin zitzaio-lakoan nago: bere bertso on askok txalo epelak jaso zituzten, eta oso oso onek bakarrik berokak. Baina kartzelako lanean erakutsi zuen kantakera honen eraginkortasuna, oiloipurdia jarri baitzigun: hain hasi zen bolumen baxuan kantuan, publiko dena ixilarazi zuela, eta “ssss!” bat ere entzun zen atzeko lerroetan.

Ekhi Erramundegi borrokatzera etorri zela iruditu zitzaidan. Edozein gai suertatuta ere berea defendatzera. Finalista bati dagokion jarrera, kale edo bale egin, publikoak istimatzen duena. Amets Arzallus txapeldun ikusi nuen. Miren Artetxeren kantakera malgua du, builarik egin gabe zeharka ari denarena, eta era berean Maialen Arzallusen indarra, errespetua lortzen du. Bere bertsoak ez dira oharkabea pasatzen.

## Colinaren eguna

Presentziaz A. Arzallus txapelduna den moduan, bertsoan Sustrai Colina gailendu zelakoan nago. Saio denetan eutsi zion goiari eta bertso batzuk puntakoak egin zituen. A. Arzallusek ale antologikoak utzi zituen, baina estropozoak egin ere bai. Kartzelara burumakur sartu zen, irtetea ondo altxa bazuen ere. Horregatik harritu ninduen emaitzak eta batez ere, 23,5 punturen aldeak. Bertsoan hizketan ari bailitzan egiten duen Uztapidek ez zuen bere egun onena izan. Eta Xalbador oraingoan publikoak ulertu zuelakoan nago. ■

**NAZIARTEK  
TRIKITIXA  
JAIALDIA**

DONOSTIAko VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAN,  
2008ko AZAROAREN 22an,  
larunbata, 19.00etan

- IRLANDA
- Spraoi
- ITALIA
- Menta Fresca Danza
- GALIZIA
- Pandeiro Furado
- EUSKAL HERRIA
- Iparaldeko Zpeiz Mukaki
- Igorreko Arantzarte dantza taldea
- Gipuzkoako sasi dantza

Antolatzailea  
Euskal Herriko  
TRIKITIXA  
Elkartea

Babeslea  
ARGIA